


Dekameron

III, 1 eta 10

Giovanni Boccaccio





BOOKTEGI

Guztion liburuak, guztiontzat

booktegi.eus

GIOVANNI BOCCACCIO

Masetto Lamporecchikoa
Alibech ermitau egiten da

Dekameron, III, 1 eta 10

Itzultzailea: Matias Mugica

Hitzaurrea: Josu Zabaleta

Hitzaurrea

Covid-19aren ondoriozko itxialdia hasi zenean hauxe izan zen denborapasa irakurtzeko (nola edo hala denbora pasatu behar baitzen eta zer hoberik denbora pasatzeko irakurtzea baino?) aholkatu ziguten lehenengo irakurgaia, aholkatzaile adituari burutik pasatzen zitzaion lehenengo asoziazioa: Dekameron. Ezin asoziazio errazagorik aurkitu irakurri den edo zeharka ezagutu den irakurgai baten eta aisialdirako espero zen perspektibaren artean: bi asteko itxialdi batean hamar gaztek elkarri kontatzen dizkioten ipuinak une hartan hamalau egun iraungo zuela espero zen itxialdi baterako irakurgai. Ezin jakin, orduan, itxialdia ez zela hamalau egunekoa izango, nahikoz luzeagoa baino. Bestela ez zen faltako proposatuko zuenik Dekameron irakurri ez baina euskarara itzultzea, Gabriel Arestiren eta Matias Mugicaren itzulpenen ondoren itzultzeko falta zena besterik ez zen.

Beste irakurgai-proposamen batzuk ere izan ziren, hala nola Jack Londonen *Izurri gorrimina (The Scarlet Plague)* irakurtzekoa, pandemiari konponbiderik aurkitzen ez bazaio egia bihurtzeko arriskua izan lezakeen distopia, edo Margarita Nafarroakoaren *Heptameron*. Ez nuen ikusi Defoeren *Izurriaren urteko egunkaria (A Journal of the Plague Year)* irakurtzeko aholkurik, ez baita –egia esan– etxe-zokoan egoteko oso-oso biotzpizgarria. Alessandro Manzoniaren *I promessi sposi* eta A. B. Chandler-en *The Hamelin Plague*-ren aholkuak ere iritsi zitzaizkidan.

Dekameroneari gagozkiola, ez Gabriel Arestik 1979an argitaratutako *Dekamerone* tipi bat-ean ez Matias Mugicak berak 2011n argitaratutako *Dekameron*. Hamar ipuinean agertzen ez diren bi ipuin berri dakartza azkeneko honek oraingoan: *Dekameroneko* hirugarren eguneko lehenengo eta azkeneko istorioak.

Boccaccioren *Dekameroneak* badu, hain zuzen, erakarmen berezi bat literaturaren eta itzulpenaren historia interesatzen zaion edonorentzat, itzultzailearentzat batez ere, literatura-lan oro literatura-lanean kate luze batean kokatzen baita, aurrekoen zordun eta ondoko hartzekodun.

Literatura-lana, bere sorkuntzaren historiari begira, ezin uler daiteke besteekiko loturarik gabe, kate luze bateko kate-begi gisa baizik. Ezin uler daiteke aurrekaririk edo ondokorik edo jarraipen-esperantzarik gabe behintzat. Katearen ideiak mugatu egiten du, ordea, literatura-lanetan, literatura-lan guztietan, gertatzen den, neurri batean mamitzen den, elkarreraginen mataza, literatura-lanak ez baitira sortzen eragin-soka bat bakarretik, eragin-hari askoren, askotan ordenarik edo logika askorik sumatzen ez zaiten eragin-hari askoren eraginetik baizik. Eta gerta daiteke literatura-lan bat beste eragin-hari askoren abiapuntu izatea.

Eta ezin ahaztu eragin-hari horietako asko itzulpenaren bidez gauzatzen direla, itzulpenik gabe ezin uler daitezkeela, gerora eraginik handiena izan duten literatura-lani dagokienez batez ere.

Hala uste dut irudika daitekeela Boccaccioren *Dekameroneak* literaturaren historian, Europako literaturaren historian batez ere, izan duen eta duen lekua.

Hala, Boccacciok bere istorioaren hamar protagonisten ahotan iturri askotatik jasotako istorio eta kontakizunak jarriz osatzen du bere hamar eguneko kontalarien istorioa. Istorio horiek ez dira, noski, Boccacciok hutsetik sortuak. Aurrekariak dituzte Boccaccioren garaian, latinez batez ere, oso zabaldua zeuden istorio-bildumetan, hala nola predikariek sermoietan erabiltzeko prestatutako exempla edo enxiemplo, agiografia, santu-bizitza eta gisakoetan. Baita haien oso bestelakoak ziren frantses roman eta *Dekameronean* ironia eta txantxetarako aukera ugari emango zioten fabliauxetan ere. Roman eta, batez ere, fabliaux hauen iturria ere historian atzerago eta geografian urrutiago bilatu behar da gehienetan.

Ugari dira, hain zuzen, bide askotatik iritsi eta azken Erdi Aroko garaietan zabaldua zeuden antzinako Greziako, arabiar literaturako eta are ekialde urrunagoetako autoreen aztarrenak: iturrien artean aipatzekoak dira, esate baterako, Barlaam eta Josafaten bizitzako zenbait istorio, obra hori bera Budaren jataka-en bizantziar moldaera bat delarik. Esoporen fabuletatik hartuak dira, bestalde, 1180an argitara eman zen eta *Dekameronean* eragina duen Roman de Renart (euskarara Joan M. Arzallusek itzulia: *Azeri axiantea*, guztiz gozagarria): edo itzulpenen katea ilustratzeko atzerago eta urrutirako joz, K.a.ko III. mendetik K.o.ko III. mendera bitartean metatutako Indiako *Pantxatantra* fabula-bildumaraino iritsi gaitzke: Kosroes II.aren garaian palhavi-ra eta sirierara itzulirik, VIII. menden Al-Muqaffa irandar itzultzaileak arabierara bihurtu zuen (Kalila wa-Dimna). Ipuin- eta istorio-

altxor hori hainbat bidetatik iritsi zen, seguru asko, Europara eta zabalduko zen han: gurutzadetan preso hartu eta eta islamdarren artean bizi izan ziren bitartean ezagututa Europara itzultzean ekarririk, edota Iberiar penintsulan egin ziren itzulpenen bitartez. Hala, adibidez, Al-Muqaffaren itzulpena, Kalila wa-Dimna, bost mende geroago, Alfonso X.a erregearen aginduz, nonbait, hebraierazko itzulpen batetik edo arabierazko itzulpenetik gaztelania zaharrera itzuli zen: *Calila e Dimna*. Beste horrenbeste esan daiteke Boccaccioren *Dekameronea* baino mende bat lehenago Alfonso X.a erregearen anaia Don Fadriqueren ekimenez itzultako Sendebar-aren eraginaz. Ez lirateke ahaztu behar, orobat, Gallanden itzulpenak Europan testu osoa ezagutarazi baino lehen mendebaldean aski ezagunak ziren *Mila eta bat gauetako* pasarteak. Garai horretako arabiar munduaren eta Europa kristauaren arteko loturak ezagutzeko ez dago nahitaez gurutzadetara edo Iberiar penintsulara begiratu beharrik; Italian bertan ere, ohikoa zen kristau eta islamdar kulturen arteko harremana eta elkarren ezagutza: Dante Aligherik berak denboratxo eman zuen Sizilian, eta zalantzarik ez dago hango kultura islamdar-kristau hibridatuan arabiarren arteko kontakizunak ez ezik, haien jakintza, haien literatura, erlijioa eta filosofia ezagutzeko aukera izan zuela.

Istorkoak zedarriztatzeko ipuin zabalago baten barruan kokatzeari dagokionez, prozedura zaharra da (Apuleioren *Urrezko Astoa*, adibidez), edo, aurrekoari jarraituz, bai *Mila eta bat gauetako* bai Sendebar-eko egitura bera errepikatzen du Boccaccioren *Dekameroneak*, eta egitura horretan protagonismo berezia ematen die emakumeei, haietan bezala, *Mila eta bat gauetako* protagonismo positiboarekin, Sendebar-eko misoginiatik urruti.

Tradizio horietatik guztietatik edanez, hala ere, Boccaccio ez zen mugatu 1348an Florentziak pairatu zuen izurri beltzaren aitzakiarekin bilduma bat egitera, baizik eta aurrekari horien guztien oihartzuna eguneratu eta bere garairako birformulatu egin zuen, Erdi Aroko mundua gainbehera zetorren, mundu hartako balioak eta aurotitatea gatza uretan bezala desegin eta balio berriak eta gizartearen protagonista berriak sortzen eta indartzen ari diren garai baterako. Hala, *Dekameroneko* istorioetan behin eta berriro uzten dira barregarri hiltzen ari den gizarte zaharraren agintariak, sinesteak, balioak, gizarte zahar haren euskarri diren irozgarriak. Oraingo protagonista positiboak ez dira nobleak, heroi fededunak, Boccaccio bizi den gizartean nagusitzen ari diren hirietako burgesak eta langileak baizik. Gizartea den bezala, bere ilun eta argi guztiekin erretratatzeko saiatzen da, eta gizarte horretan onartuak diren balioak gauzatzen eta gorpuzten dira kontakizunetan: hizkuntza bera, besteren artean. Orain helburu nagusia ez da dagoeneko gizarte ideal baten irudikatzea eta onbidearen irakaskuntza, jostaketa baizik; eraikitzen ari den gizarte berri horretan balio onartua delako jostaketa soila.

Hizkuntzari dagokionez, mundu klasikoaren miresle eta aditua zen Boccacciok, beste lan askotarako baliatu zuen latina baztertu eta Toscanako italiera, Florentziako hizkera eta prosa (eliteetan estimu handiagoa zuen bertsoaren orde) hartu zituen adierazmoldetzat, Dante bere maisu miretsiaren ereduari eta haren *De vulgari eloquentia*-ri jarraituz, bide batez literaturaren hartzailea zen elite zaharra arbuiatu eta elite berri bat, burgesia ikasia, hartzaile duintzat deklaratu.

Boccaccioren lanak bi eratako eraginak izan zituen Italian eta Europako gainerako herrialdeetan. Alde batetik, haren latinezko lanak erreferentziazko obrak izan ziren antzinatea ezagutzeko, latina zelarik jakintzaren alorreko nazioarteko hizkuntza eta halaxe jarraituko zuelarik luzaroan.

Beste alde batetik, *Dekameronea*, herri-hizkuntza jasoan idatzia, hizkuntza bernakuluetako prosa landu dotorearen eredu bihurtu zen; ospe handia eman zion Boccacciori eta berehalaxe hartu zuen, Danteren eta Petrarcaren poesia-lanekin batera, itzulpenaren eta imitazioaren bidea. Artean inprentarik ez bazen ere, ezin konta ahala kopia egin ziren eskuz, han eta hemen. Italiako literatura Europako literaturen erreferentzia nagusietako bat bilakatu zen. *Dekameronearen* itzulpenak egin ziren Europako hizkuntza nagusietara; frantses, katalan, ingeles...

Alde guztietan izan zituen imitatzailleak:

Ingalaterran aipatzekoa da, lehenik eta behin, Geoffrey Chaucer (1343-1400). Haren *Canterbury Tales* bukatu gabean, *Dekameronearen* egitura ez ezik, haren hainbat istorio moldatzen dira.

Italian imitatzaille ugari izan zituen, Matteo Bandello (1490-1560), Franco Sacchetti, Giraldi Cinthio, eta abar.

Frantzian ezin aipatu gabe utzi Margarita Nafarroakoa (1492-1549) *Heptameron*-aren egilea.

Espanian, Cervantes bera, bere *Novelas Ejemplares*-etan Boccaccioren iturritik edaten duena. Edo Lope de Vegaren *Novelas a Marcia Leonarda*. Gerora Shakespeare, Molière, Balzac eta Goetheren obretan ere *Dekameronaren* aztarrenak agertzen dira.

Geroztik ere literatura unibertsaleko obra handi horren eragina ez da itzali munduko literaturetan. Gurean Gabriel Arestiren itzulpena eta Matias Mugicaren lehengoa eta oraingo berri hau ditugu gozagarri. Oraingoz, osorik itzultzen ez den bitartean.

Josu Zabaleta

MASETTO LAMPORECCHIOKOA

Masetto Lamporecchiokoa mutua dela itxura
egin eta moja komentu bateko baratzezain
egiten da eta moja guztiak elkarrekin
borrokan dabiltza harekin oheratzeko.

Dama txit ederrak, makina bat gizonak eta emakumek, ero alaenak, errazegi uste izaten dute ze neska gazte bati buruan oihal zuria edo soinean abitu beltza jarri orduko bertan emakume izateari utzi eta emakume-gurariak ez dituela jada sentitzen, moja egitean harrizko egin balute bezala; eta beren uste horren kontrako ezer aditzen badute, haserretzen dira naturaren kontra bidegabe handia eta kriminala egin balitz bezala, pentsatu edo burutan hartu gabe zer gertatzen zaien beraiei, nahi dutena egitea libre dutelarik, libertate horrek ez baititu asetzen, eta kontuan hartu ere gabe zer indar handia duten aisiak eta tentazioek. Eta beste makina batek ere errazegi uste dute nekazariei aitzurrak eta palak eta jan zakarrak eta bizimodu deserosoak erabat kentzen dizkietela haragiaren desioak eta erabat lakazten diela bai adimendua bai asmamena. Nik, ordea, nahi nuke, erreginak horrela agindu baitit, eta egin digun proposamenetik atera gabe, ipuintxo baten bidez argitu zeinen oker dauden horrela uste dutenak.

Gure eskualde hauetan, bazen, eta bada gaur ere, emakume komentu bat bere santutasunagatik oso famatua (ez dut izena aipatuko bere fama den mendrena ere ez gutxiagotzeko). Hartan, aspaldi ez dela, zortzi moja eta abadesa bat bizi ziren, denak gazteak, eta, behin beren jardin ezinago ederreko baratzea lantzen zien gizontxo prestua bere soldatarekin kontent izan ez eta mojen administradoreari kontua eskatuta, Lamporecchiora itzuli zen, bere jaioterrira. Han, alaiki errezibitu zutenen artean bazen nekazari bat gaztea eta sendoa eta, nekazaria izateko, ederra, Masetto izenekoa. Hark galdetu zion, bada, non egona zen hainbeste denboran. Gizon prestuak, baitzeritzan Nuto, kontatu zion eta Masetto hark galdetu zion zer lan egiten zuen monasterioan. Horri Nutok erantzun zion:

–Han daukaten baratze handi ederra lantzen nuen eta horrez gain aldiari behin basora joan egur bila, ura atera eta antzeko lan txikiak egiten nituen; baina monjek hain soldata txikia ematen zidaten non ozta-ozta nuen dirua galtzak erosteko. Eta gainera mojak dira denak gazteak eta nire iduriko deabrua gorputzean dutenak, ezin baita ezer haien gustoko egin. Are gehiago: behin edo beste baratzean ari nintzela batek esaten zidanean: “Jartzazu hauxe hemen”, eta beste batek: “ Jartzazu hauxe han”, eta beste batek aitzurra eskutik kendu eta esaten zidan: “Hauxe ez dago bada ongi”, hainbeste nazkatzen ninduten non lana utzi eta baratzetik alde egiten nuen; eta horrela, hau zela hura zela, ez nuen gehiago gelditu nahi izan eta hemen naiz. Eta, bide batez, haien administradoreak esan zidan inor ezagutzen banuen lan hartarako on zenik, bidaltzeko, eta nik hala agindu nion; baina, Jainkoak errainak zainduko ahal dizkio, nik ez baitiot inor lortu ez bidali behar.

Nutoren hitzak adituta, izugarritzko gogoari jarri zitzaion Masettori moja haien artean egoteko, goitik behera urtzera, Nutoren hitzetatik igartzen baitzion han berak nahi zuen zerbait lortzeko bidea izanen zuela; baina antz eman zion ez zuela lortuko Nutori ezer esaten bazion, eta hortaz:

–A, zein ongi egin duzun etxera itzulita! Zer da, ba, gizon bat emakume artean? Hobe bai deabru artean ere! Zazpitik sei alditan berek ere ez dakite zer nahi duten.

Baina gero, solasa bukaturik, Masetto hasi zen mojekin egon ahal izateko bideak bilatzen eta bai baitzekien ongi trebatua zegoela Nutok esaten zuen lan klasean, ez zuen beldurrik hortik huts egiteko, baina bazekien ez ziotela harrera onik egingen gazteegia eta ederregia izateagatik. Horregatik, gauza asko pentsatu ondoren, imajinatu zuen:

–Tokia hemendik oso urruti dago eta inork ez nau han ezagutzen; mutua izateko itxura egiten badut, seguru ongi hartuko nautela.

Eta ideia hori gogoan, aizkora soinean harturik, inori esan gabe nora zihoan, pobre baten itxuran joan zen monasteriora, eta hara iritsi eta sartu zen, eta kasualidadez administradorea topatu zuen patioan eta hari keinuka, mutuek egiten duten bezala,

jatea eskatu zion Jainkoarren eta adierazi zion berak moztuko ziola egurra, behar bazuen. Administradoreak gogoz jatera eman eta ondoren zenbait enbor jarri zizkion aurrean, Nutok ezin moztu izan zituenak, eta hark, izugarri sendoa baitzen, berehala pikatu zituen hondarreraino. Administradoreak, orduan, basora joan behar baitzuen, berekin eraman zuen eta han egurra mozteko esan zion; ondoren, astoa aurrean jarrita aditzera eman zion etxera eramateko egurra. Masettok ederki egin zuen eta hortaz administradoreak zenbait egunez eduki zuen behar zituen gauza batzuk egiten, harik eta halako egun batean abadesak ikusi eta administradoreari nor zen galdetu zion arte. Eta hark erantzun zuen:

–Andrea, gizagaixo mutua eta gorra da, orain egun batzuk limosna eske etorria. Nik lagundu diot eta behar ziren egiteko batzuk eginarazi. Baratzea lantzen baldin badaki eta gelditu nahi badu, uste dut zerbitzu ona eginen ligukeela, haren beharra baitugu, eta sendoa baita eta nahi duena egin baitezake; eta gainera zure gazte horiekin broman ibiltzeko kezka gutxi zenuke.

Eta abadesak horri:

–Hori egia esan duzu, alafede! Galde iezaiozu baratzea lantzen badakien eta egizu eginahala geldiarazteko: pare bat galtza xar eman, kapote zaharren bat, eta balaka ezazu, zaindu, emaiozu ongi jatera.

Administradoreak esan zuen halaxe eginen zuela. Masetto ez zen urruti, patioa eskobatzeko itxura egiten ari, hori dena entzuten, eta pozik zioen berekiko: “Hor barna sartzen banauzue, egundo ez bezala landuko dizuet, bai, baratzea”.

Orduan, administradoreak ikusi zuelarik ederki lantzen zekiela, eta keinuka galdetu ziolarik han gelditu nahi zuen, hark ere keinuen bidez erantzun zion nahi bezala eginen zuela. Eta baratzea lantzeko agindu zion eta egitekoak jarri; ondoren, monasterioko beste lan batzuen atzetik joan zen, Masetto han utzita. Eta baratze lan hartan, eguna joan eguna etorri, mojak hasi zitzaizkion zirika eta adarra joka, mutuekin maiz egiten den bezala, eta munduko hitzik kruelenak esaten zizkioten, ustez hark ulertzen ez ziela;

eta abadesari, inondik ere uste baitzuen mutuak mingainik ez zuen bezala buztanik ere ez zuela, ez zitzaion ezer inporta.

Orduan egun batez, Masetto asko lan egin eta atsedena hartzen ari zela, bi mojatxo gazte, baratzetik paseoan, hurbildu ziren Masetto itxuraz lo zegoen tokira; eta haietako batek, ausartxeagoak, besteari esan zion:

–Sekretua gordeko didazula uste banu, kontatuko nizuke maiz izan dudan pentsamendu bat, agian zuri ere balioko lizukeena.

Besteak erantzun:

–Esan ezazu konfiantzarekin, zaude seguru ez diodala inoiz inori kontatuko.

Orduan ausart hori hasi zen:

–Ez dakit erreparatu diozun nola gauzkaten bijilatuak, eta hemen ez dela gizon bakarrik ere sartzera atrebitzen non ez den administradorea, zaharra baita, eta gero mutu hau; eta askotan aditu diet hona etorri diren andre askori munduko gozotasun guztiak hutsa direla emakumea gizonari batzen zaionean sortzen den gozotasunaren aldean. Horregatik askotan gogoratu zait mutu honekin proba egitea ea egia den, ezin baitugu beste inorekin egin proba, eta hura munduan denik eta hoberena baita horretarako, ez bailezake nahita ere ezer konta: ikusten duzu nola den gaxte tontoa, zentzua sartu baino lehen handitua. Pozik adituko dut zer iruditzen zaizun hau.

–Ai ene! –esan zuen besteak–. Zer diozu? Ez al dakizu Jainkoari eskaini diogula gure birjintasuna?

–O! –esan zuen besteak–. Zenbat gauza agintzen zaizkio egunero Jainkoari eta bakarrik ere ez kunplitzen! Guk eskaini badiogu, bila ditzala beste bat edo batzuk agindua kunplitzeko.

Eta lagunak orduan:

–Eta izorra gelditzen bagara? Zer gertatuko da?

Orduan besteak:

–Etorri baino lehen gogoratzen zaizu gaitza; hori gertatzen denean, orduan izanen da denbora hartaz pentsatzeko; mila modu izanen dira inoiz ezer jakin ez dadin, gerok ezer esaten ez badugu.

Hori aditurik besteak, bere lagunak baino ere gogo gehiago baitzeukan gizon bat zer animalia klase den probatzeko, esan zuen:

–Konforme, Nola egiten dugu?

Eta besteak:

–Ikusten duzu arratsaldeko hirurak jotzeko daudela: uste dut gure moja lagun guztiak lo daudela gu ezik; begira dezagun baratzean ea inor dagoen, eta inor ez badago, aski izanen da mutila eskutik hartu eta horrako etxola horretara eramatea, non bera euritik babesten den, eta han gutako bat harekin barnean dagoela, besteak guardia egingen du. Mutila tontoa da erabat eta nahi dugun bezala egingen du.

Masettok hitz horietatik dena aditzen zuen eta, obeditzeko prest, haietako batek hartzea besterik ez zuen espero. Hortaz, zoko guztiak ongi arakatu ondoren eta inondik ere ezin inork ikusi zituela konprobatuta, solasa hasi zuen mojak Masettori hurbildu, esnatu, eta Masetto berehala zutik jarri zen; orduan mojak laztantsu eskutik hartu, Masettok barre tontoa egiten zuen bitartean, eta etxolara eraman zuen, non ez zion Masettori gehiegitan eskatu behar izan berak nahi zuena egiteko. Eta lagun leiala baitzen, nahi zuena izan zuenean, besteari utzi zion lekua eta Masettok, beti ere tontoarena eginaz, gustoa eman zion hari ere; eta hortaz, alde egin aurretik bakoitzak behin baino gehiagotan probatu nahi izan zuen mutuak nola egiten zuen zaldiz, eta

ondoren bien artean solasean maiz esaten zuten gauza gozo ederra zela hura, uste baino puskan gehiago ere bai; hortaz, ordu egokiak aprobetxatuz, joaten ziren mutuarekin dibertitzera.

Gertatu zen egun batez haien lagun bat, bere gelako leihotxo batetik kontuari antz emanik, beste biri erakutsi ziela; eta lehenbizi pentsatu zuten abadesari salatzea, baina gero iritziz aldatu eta, elkar adituta, Masettoen saileko parte bat hartu zuten eta, haiei, gainerako hiruak ere erantsi zitzaizkien, hainbat bidetatik eta hainbat unetan. Azkenik abadesa, gauza horietaz oraindik konturatu gabea baitzen, bero handiko egun batez bakar-bakarrik baratzean zebilela Masetto topatu zuen –zeina gauean gehiegi zaldiz ibilita leher eginda gelditzen zen eguneko edozein lanekin– luze-luze almindrondo baten itzalean etzanda lo; eta haizeak aurreko arropa jasotzen baitzion, dena agerian zeukan. Hura ikusirik, andre abadesari, bere burua han bakarrik ikusita, bere mojatxoei bezalako gogoia jarri zitzaion eta Masetto esnaturik berekin eraman zuen gelara eta han egun askotan eduki, ordu arte besteengan deitoratu zuen gozotasun hura behin eta berriz probatuz, gainerako mojen atsekabe handirako, Masetto ez baitzitzaien etortzen baratzea lantzerara.

Azkenik, abadesak bere gelara itzultzen utzi eta oso maiz deitzen baitzuen etortzeko, bide zen baino gehiagoko parte hartuz harengandik, Masetto, hainbeste emakume ezin aserik, konturatu zen bere mututasunari eusten bazion kalte handia etortzen ahal zitzaiola; hortaz, abadesarekin zegoen gau batez, mingaina askatu eta hasi zen esaten: –Andrea, fama da oilar bat aski dela hamar oilorentzat, baina hamar gizonek doi-doi eta nekez ase dezaketela emakume bakarra, eta nik, berriz, bederatziri eman behar kontentu! Ezin nuke inolako moduz iraun: are gehiago: orain arte egin dudanak ezer egiteko gauza ez naizela utzi nau, asko nahiz gutxi, eta hortaz, edo Jainkoaren bakean joatera uzten nauzu edo konponbideren bat bilatzen diozu kontu honi.

Andreak, ustezko mutua hizketan adituta, erabat trublaturik, esan zion:

–Hau zer da? Ez al zinen mutua?

–Andrea, –esan zuen Masettok– hala nintzen, baina ez jaiotzez, baizik eta hitza kendu zidan gaitz baten ondorioz, eta gaurko gauean lehenbiziko aldiz sentitu dut bihurtu zaidala hitza eta eman ahala esker ematen dizkiot hortaz Jainkoari.

Andre abadesak sinistu, eta galdetu zion zer esan nahi zuen bederatziri kontentu ematen ziola esatean. Masettok esan, eta abadesak, orduan, ulertu zuen beste moja guzti-guztiak bera baino azkarragoak zirela eta hortaz, emakume argia baitzen bera ere, Masettori joaten utzi gabe, erabaki zuen bere mojekin konponbidea bilatzea kontu honi, Masettok monasterioaren izen ona ez zikintzeko. Eta nola egun haietan administradorea hila zen, denak konforme jarrita, denek agerian deklaratu zuten ezkutuan egin zutena, eta erabaki zuten, Masettoren poz handirako, inguruko jendeari sinistaraztea beren otoitz eta monasterioko zaindari zen santuaren merezimenduei esker bihurtu zitzaioala Masettori hitza eta, hortaz, administradore egin zuten, eta ongi eraman ahal izateko moduan banatu zizkioten lanak. Eta nola lan horien ondorioz fraidetxo asko sortu ziren, hain diskrezio handian eraman zuten kontua non inork ez zuen ezer jakin abadesa hil zen arte, Masetto zahartua zela eta etxera itzuli nahi zuenean; eta hori jakin zenean gogo onez eman zioten baimena.

Hala, bada, Masetto, zahartua, aitatua eta aberastua, bere umeak hezteko lanik ez gasturik bere gain ez zuela, bere gaztaroa ongi aprobeztatu ondoren, behin aizkora soinean zuela ateratako herrira itzuli zen, zioela Kristok horrela tratatzen zuela koroan adarrak jartzen zizkiona.

ALIBECH ERMITAU EGITEN DA

Alibech ermitau egiten da eta Rustico monjeak
erakusten dio nola sartu deabrua infernuan;
ondoren, handik eramaten dutenean,
Neerbaleren emazte bihurtzen da.

Dioneok, Erreginaren ipuina arreata handiz entzun ondoren, aditu zuenean bukatu zuela eta orain bera bakarra gelditzen zela bere ipuina kontatzeko, aginduari itxaron gabe honela hasi zen, irribarrez:

Dama xarmagarriak, seguru asko zuek ez duzue inoiz aditu izanen nola sartzen den deabrua infernuan, eta horregatik, egun osoan ahotan izan duzuen gai horretatik den gutxiena apartatu gabe, nik esan nahi dizuet nola; hori jakiteak agian arima salbatzeko aukera emanen dizue eta ikasiko ere duzue ze, egia bada ere maitasuna gustorago bizi izaten dela jauregi alai eta logela atsegingarrietan, aldian behin baso sarrietan, mendi lakatzetan eta hartzulo jendegabeetan ere erakusten duela bere indarra, zeinak aditzera ematen duen gauza guztiak daudela haren menpe.

Hala, bada, harira etorritz, diot Gafsako hirian, Berberian, izan omen zela behin gizon bat izugarri aberatsa, zeinak beste seme-alaba askoren artean alabatxo bat bazuen edergalanta, izenez Alibech. Alibech honek, kristaua ez baitzen eta hirian zeuden kristau asko maiz aditu baitzituen kristau fedea eta Jainkoaren zerbitzua goratzen, egun batez galdetu zion haietako bati nola serbitzen ahal zuen berak Jainkoa hobekien eta oztopo gutxienekin. Kristau hark erantzun zion munduko gauzetatik ahalbait urrutien ihes egiten zutenek serbitzen zutela Jainkoa hobekien, hala nola, esaterako, Tebaidako basamortu bakartira joaten zirenek. Neskatoa, oso inozoa baitzen, eta hamalau bat urtekoa, gurari ordenatu batek ez baizik eta ume-oldar batek eramanez, biharamunean bertan, guztien isilik, ezkutuan eta bakar-bakarrik, bidean jarri zen Tebaidako basamorturantz, eta eginahal handia eginik eta oldar horrek irauten baitzion, iritsi zen desertu hartara eta urrutitik etxetxo bat ikusita hartara egin zuen eta han gizasantu bat aurkitu zuen atean, zeinak, han aurkitzeaz harriturik, galdetu zion zeren bila zetorren.

Neskak erantzun zion ze Jainkoaren goi-arnasak harturik, aurkitu nahi zuela haren zerbitzuan nola jarri eta bai Jainkoa serbitzen nork erakutsi ere.

Gizon prestu hark, neska hain gazte ederra ikusirik, berekin atxikitzen bazuen demonioak tentatuko ote zuen beldurrez, asko alabatu zion jarrera on hura eta belar sustrai eta basa fruitu batzuk eta datil bakan batzuk jatera eta ura edatera eman ondoren, esan zion:

–Alaba, hemendik ez oso urrutira bada gizasantu bat ni baino askoz ere maisu hobea dena zu bila zabiltzan horretarako; zoaz harengana.

Eta erakutsi zion bidea eta neska, harengana iritsirik eta harengandik lehengo hitz berberak harturik, eta aurrerago joanik, ermitau gazte baten hartzulora iritsi zen noizbait, gizon debota eta ona, Rustico izenekoa, eta hari ere egin zion besteei egindako eske bera. Rusticok, bere burua proba handi batekin neurtu nahirik, ez zuen besteek bezala neska bidali edo aurrerago pasarazi, hartzuloan atxiki baizik; eta gautu zuenean zoko batean kamaina bat atondu zion palmera hostoz, eta han atsedean hartzeko esan zion.

Hori eginik, istantean hasi zitzaizkion tentazioak bere indarrei gerra egiten, eta gizasantuak, ikusirik indar horietan konfiantza gehiegi izan zuela, gehiegi eutsi gabe bere indarrez etsi eta amore eman zuen. Eta alde bat utzita pentsamendu santuak eta orazioak eta diziplinak, hasi zen neskaren gaztetasuna eta edertasuna imajinatzen, eta horrez gain pentsatzen ere zer bide eta zer modu hartuko zuen ez neska konturatzeko gizon haragikoiaren gisan lortzen zuela harengandik nahi zuena. Eta galdera batzuekin probatuz, konturatu zen neskak ez zuela artean gizonik ezagutu eta iduri bezain tolesgabea zela egiaz; hortaz, gogoratu zitzaion nola eramango zuen, Jainkoa serbitzeko itxuran, bere gurariak asetzera. Eta lehenbizi hitz askorekin erakutsi zion zein etsai handia zen gure Jainko jauna deabruarekin, eta ondoren aditzera eman zion Jainkoari egiten ahal zitzaion zerbitzurik handiena zela deabrua infernua sartzea, hara kondenatu baitzuen gure Jainko jaunak.

Neskatoak galdetu zion orduan hori nola egiten zen eta Rusticok erantzun:

–Aurki jakinen duzu eta hartarako nik egiten dudan gauza bera egin behar duzu zuk ere. Hasi zen zituen jantzi apurrak erantzten eta erabat larruhutsik gelditu zen eta neskak ere gauza bera egin zuen; orduan Rustico otoitz egiteko bezala belaunikatu zen eta neska bere aurrean jarrarazi.

Eta horrela jarrita, Rustico, neska hain ederra ikustean, inoiz baino situagoa zela, etorri zen haragiaren pizkundea eta Alibehek hura ikusi eta harriturik esan zion:

–Rustico, zer da hori orain kanpora ateratzen ikusten dizudana eta nik ez daukadana?

–O, alaba nirea, –esan zuen Rusticok–, hauxe da, ba, deabrua arestian aipatutakoa, eta begira nola egiten didan orain ezin jasanezko mina.

Orduan neskak:

–O, bedeinka dakiola gure Jainko jaunari! Ikusten dut zu baino hobeki naizela, nik ez baitut horrelako deabrurik.

Esan zuen Rusticok:

–Egia esan duzu hori, baina baduzu beste gauza bat nik ez daukadana, eta honexen lekuan eduki ere.

Alibehek orduan:

–Zer?

Eta Rusticok:

–Infernua daukazu zuk eta esaten dizut, nire ustez Jainkoak hona bidali bazaitu, nire arimaren osasunerako izan dela, zeren deabru honek orain arte bezala tormentu hau ematen segitzen badu, nitaz urrikitu eta deabrua infernuan sartzen uzten badidazu, atsegin eta mesede ikaragarria egingen didazu, baldin egia bada asmo horretan etorri zarela toki hauetara.

Neskak fede onez erantzun:

–O, aita! Nik infernua baitut, nahi duzunean izan dadila.

Esan zuen orduan Rusticok:

–Alaba nirea, Jainkoak bedeinka! Goazen, bada, eta sar dezagun infernuan, ondoren bakea eman diezadan.

Eta horrela esanik, gaztea bere ohatze batera eramanda, erakutsi zion nola jarri behar zen Jainkoak madarikatu hura kartzelaratu ahal izateko.

Gazteak, ez baitzuen ordu arte inongo deaburik infernuan sartu, lehenbiziko aldian min pixka bat sentitu zuen eta, hortaz, Rusticori esan zion:

–Zinez, aita, izugarri gaiztoa behar du inondik ere deabru horrek eta Jainkoaren benetako etsaia zeren besteei ez ezik, infernu barrenean sartzean ere min egiten baitu.

Esan zuen Rusticok:

–Alaba, ez da beti horrela izanen.

Eta hori ez berriz gertatzeko, ohetik jaiki baino lehen sei bat aldiz sartu zuten deabrua infernuan, hainbateraino non erabat beheratu zioten buruko harrokeria eta gogo onez baketurik gelditu zen.

Baina nola ondoren oso maiz harrotu baitzen atzera, eta neskak, beti obedient, kentzeko mesede egiten zion, gertatu zen gustatzen hasi zitzaiola josteta hura eta hasi zitzaion Rusticori esaten:

–Ongi ikusten dut egia esaten zutela Gafsaiko gizon haiek Jainkoa serbitzea ongi gauza gozoa dela, eta egiaz ez naiz oroitzen inoiz beste ezer eginik hainbesteko gustoa eta plazera eman didanik nola deabrua infernua sartzeak; eta horregatik juzgatzen dut Jainkoa serbitzeaz beste ezertan aritzen dena abere handia dela.

Hortaz, bera joaten zitzaion maiz Rusticori eta esaten:

–Ni Jainkoa serbitzera etorri naiz hona eta ez alferrik egotera; sar dezagun, bada, deabrua infernua.

Eta hura eginik batzuetan zioen neskak:

–Rustico, ez dakit zergatik egiten dion ihes deabruak infernuari zeren bera hain gogoz balego infernua nola infernuak errezibitzen eta edukitzen duen bera, ez litzateke inoiz handik aterako.

Hala bada, neskak maiz gonbidatzen baitzuen Rustico Jainkoa serbitzera, honi hainbeste higatu zitzaion jipoiaren barnealdea non hotza sentitzen zuen beste edonor izerditan egongo zen tokian. Hortaz, hasi zitzaion neskari esaten ez zegoela zertan beti ibili deabrua zigortzen, burua harrotu eta jasotzen zuenean baizik: “Eta guk, Jainkoaren graziaz, hainbeste otzandu dugu deabrua non bera ari zaion Jainkoari eskaka bakea emateko.” Eta horrela denbora baterako isilik utzi zuen neska.

Baina neskak, ikusirik Rusticok ez ziola deitzen deabrua infernua sartzeko, egun batez esan zion:

–Rustico, zure deabru horrek ederki zigorturik ez badizu zuri ja tormenturik ematen, ni, berriz, ezin nagoke nire infernuarekin, beraz ongi egingen duzu orain zuk zure

deabruarekin laguntzea nire infernuko amorrua baketzen, nik nire infernuarekin lagundu nuen bezala zure deabruari harrokeria beheratzen.

Rustico, belar sustraiez eta urez elikatzen baitzen, apenas gauza zen desafioa edukitzeko eta esan zion sobera deabru beharko liratekeela infernu hura baketzeko baina hark ahal zuentxoa eginen zuela. Eta horrela behin edo beste ase-bidea ematen zion, baina hain bakanki, non hura lehoi baten ahora babatxoa botatzea bezala ipuinaren efektu komikoa. Hortaz, neskatoa, iruditzen baitzitaion ez zuela Jainkoa nahi bezain maiz serbitzen, ez zen gelditzen kexatik.

Baina Rusticoren deabruaren eta Alibechen infernuaren arteko liskar hura gertatzen zelarik, bataren gehiegizko desiragatik eta bestearen potentzia eskasagatik, gertatu zen Gafsan sute handi bat piztu eta Alibechen aita, haren seme-alabak eta familia osoa bere etxean bertan kiskali zirela eta, hortaz, Alibech haren ondasun guztien jabe gelditu zela. Horregatik, Neerbale izeneko gazte batek, bere fortuna osoa gorteko bizitzan gastatuta, aditurik Alibech bizirik zela, haren bila hasi eta aurkitu ere egin zuen, gorteak aitaren ondasunak ondorengo faltan bahitu baino lehen, eta ondoren Gafsara eraman zuela Rusticori arindu ederra emanaz, neska, gogoz kontra behartuta, han emaztetzat hartu eta haren ondare handiaren hartzaille bihurtzeko asmoz. Baina andreek galdetu ziotenean Alibechi desertuan zela zertan serbitzen zuen Jainkoa, Neerbale ez baitzen oraindik harekin oheratu, erantzun zien deabrua infernuan sartuz serbitzen zuela eta Neerbalek bekatu handia egin zuela bera halako zerbitzu handi batetik ateratzean.

Andreek galdetu zioten nola sartzen den deabrua infernuan. Neskak, erdi hitzez erdi keinuz erakutsi zien nola, eta haiek hainbeste barre egin zuten non oraindik ez duten atertu, eta esan zuten:

–Ez zaitezela tristerik egon, alaba, hori hemen ere egiten baita ongi. Neerbalek eta zuk ongi serbituko duzue horretan gure Jainko jauna.

Ondoren, batak besteari esan eta esan, leku komun bihurtu zuten Jainkoari egiten ahal zaion zerbitzurik atseginena dela deabrua infernuan sartzea eta esaera horrek, itsasoaz

honat pasaturik, gaur ere irauten du. Eta horregatik, zuek, andre gazteak, Jainkoaren graziaren premian baitzaudete, ikasazue deabrua infernuan sartzen zeren horrek gusto handia ematen baitio Jainkoari eta bai bi parteei ere, eta hortik on handia etorri eta segitu baitaiteke.